

KOSTUAK

Negozio bat aurrera eraman ahal izateko, honek izango dituen kostuak adieraztea eta berrikustea beharrezkoa da. Horretarako orain arte hartu ditugun erabakiak kontuan hartu beharko ditugu.

Hasteko, kostu aldakorrak izango ditugu, izan ere, gure produktua ekoizteko hainbat lehengai eta energia erabili beharko ditugu eta horiek denbora pasa ostean aldatu egiten dira. Horrez gain, eskala ekonomikoak izango ditugu: ekoiztutako pultseren arabera prezio bat edo bestea izango dugulako; hau da, 300 pultsera egitean pultseraren kostua baxuagoa izango da, 20 pultsera egiten dugunuean baino.

Gure kostuen egiturari erreparatuz, gure produktua pultsera bat denez, horren kalitatearen eraginez bezeroak erakartzea, hau da, balioen oinarritutako negozio eredua erabiltzea zaila izango zen. Horren ondorioz, kostuak bultzatutako negozio eredua erabiliko dugu, hau da, gure helburua kostuak minimizatzea izango da bezeroak erakartzeko.

| | PREZIOA | KANTITATEA | GUZTIRA |
|-------------------|------------------|-------------------|----------------|
| Pultsera | 15€/pultsera | 50 | 750€ |
| Inportazioa | 50€/kaja | 1 | 50€ |
| Lokala | 225€/hilabete | 1 | 225€ |
| Internet konexioa | 35€/hilabete | | 35€ |
| Gailuak | 550€/ordenagailu | | 550 |
| | | | 1610€ |